

«66 quater artikulua.—Kultura sustatzeko pizgarriak.

Bat. Ikus-entzunezko lanen produkzioetako inbertsioak eta gastuak.

1. Zinemako film luze eta film labur eta ikus-entzunezko beste lan batzuen ekoiz-penetan egindako inbertsioek eta gastuek, bai eta serieko industria-produkzioaren aurretik euskarri fisiko bat egitea ahalbidetzen duten ikus-entzunezko sailetan (fikziozko, animazioko edo dokumentalak) egindakoek ere, eskubidea emango diote ekoizleari 2. apartatu honetan aipatzen den kenkari-oinarriaren gainean, kasu bakoitzean ezartzen den ehunekoaren kenkaria jasotzeko kuota likidoan.

Kenkariaren oinarrian honako hauek sartuko dira: ekoizpenaren kostua eta, halaber, kopiak lortzeko gastuak eta publizitate zein sustapen gastuak, ekoizlearen konturakoak.

Foru arau honen 67. artikulua 5. apartatuan aurreikusitako ondare-elementuen iraunkortasunaren baldintza betetzat joko da ekoizleak 3 urteko epean obraren titulartasunaren ehuneko bera mantentzen duen heinean, horrek hirugarren bati edo gehiagori horretatik eratorritako ustiapen-eskubideak osorik edo partzialki merkaturatzeko duen ahalmenari kalterik egin gabe.

Kenkaria ekoizle exekutiboak aplikatu ahal izango du soilik baldin eta ikus-entzunezko lanaren ekoizlea Espainiako lurraldean bizi ez bada eta lurralde horretan kokapen iraunkorrean jarduten ez badu.

Kenkaria ekoizle exekutiboak aplikatzen duenean, zergadunak jasandako ekoizpenaren kostuak soilik osatuko du kenkari-oinarria, eta ez da aplikatuko foru arau honen 67. artikulua 5. apartatuan xedatutakoa.

Koprodukzioaren kasuan, atal honetan adierazitako zenbatekoak koproduktore bakoitzarentzat zehaztuko dira, koprodukzioan duten partaidetza-ehunekoaren arabera.

Kenkari hori sortutzat joko da, eta ordainketak egiten diren aldietan beteko da, zenbateko horiekin.

2. Kenkariaren ehunekoa hauexek izango da:
 - a) Ekoizpenen %60, baldin eta zergadunak zerga egoitza duen Lurralde Historikoan egindako kenkariaren oinarria osatzen duten inbertsioen eta gastuen zenbatekoa inbertsio eta gastu horien zenbateko osoaren %50 baino handiagoa bada.
 - b) Ekoizpenen %50, baldin eta zergadunak zerga egoitza duen Lurralde Historikoan egindako kenkariaren oinarria osatzen duten inbertsioen eta gastuen zenbatekoa inbertsio eta gastu horien zenbateko osoaren %35etik %50era bitartekoa bada.
 - c) Ekoizpenen %40, baldin eta zergadunak zerga egoitza duen Lurralde Historikoan egindako kenkariaren oinarria osatzen duten inbertsioen eta gastuen zenbatekoa inbertsio eta gastu horien zenbateko osoaren %20 baino handiagoa bada eta %35era iristen ez bada.
 - d) %35, gainerako kasuetan.



Osorik euskaraz filmatutako obren kasuan, apartatu horretan aurreikusitakoetatik aplikatu beharreko kenkariaren ehunekoa portzentajezko 10 puntu igoko da.

Zergadunak zerga egoitza duen Lurralde Historikoan egindako kenkariaren oinarria osatzen duten inbertsio eta gastuen ehunekoa modu globalean zehaztuko da kenkaria aplikatzen den zergaldi guztietarako. Horretarako, zergadunak, kenkaria aplikatzen duen lehen zergaldian, kenkariaren oinarria osatzen duten inbertsio eta gastuen ehunekoa kalkulatu beharko du.

Kenkaria lehen aldiz aplikatu zen ekitaldian aitortutako ehunekoarekin alderatuta, zergadunak zerga egoitza duen Lurralde Historikoan egindako kenkari-oinarria osatzen duten inbertsioek eta gastuek horien guztizkoaren gainean duten ehunekoa baino txikiagoa edo handiagoa bada, kenkaria aplikatu den azken ekitaldian erregularizatu beharko da, dagokion behin betiko kenkariaren ehunekoa aplikatuz.

3. Kenkariaren zenbatekoak, ikus-entzunezko lan bakoitzeko zergadunak jasotako beste laguntzekin batera, ezin izango du gainditu ekoizpen globalaren aurrekontuaren %50, horren salbuespena izanik Europako Batasuneko estatu batek baino gehiagok finantzatu eta Europako Batasuneko Estatu baten baino gehiagoko ekoizleek parte hartzen duten ekoizpena izatea. Kasu horretan, ekoizpen globalaren aurrekontuaren %60ko muga izango du kenkariak.

Kenkaria ekoizle exekutiboak aplikatzen duenean, aurreko paragrafoan aipatutako ehunekoak zergadunak jasandako gastuei soilik aplikatuko zaizkie.

3. apartatu honetako lehen paragrafoan aipatzen den muga ez da aplikatuko artikuluko honetako 5. apartatuan xedatutakoaren arabera zailtzat jotzen diren ikus-entzunezko lanen kasuan, ezta Ekonomia Lankidetzeta eta Garapenerako Antolakundearen Garapenean Laguntzeko Batzordearen zerrendako herrialdeek parte hartzen duten koprodukzioen kasuan ere.

4. Kenkaria aplikatzeko, honako baldintza hauek bete beharko dira:
 - a) Ekoizpenak honako hauek egiaztatzen dituen ziurtagiria lortzea: kultura-izaera, edukiari dagokionez; kultura-errealitatearekin duen lotura edo kultura-aniztasuna aberasteko egiten duen ekarpena. Ziurtagiri hori Zinemagintzaren eta Ikus-entzunezko Arteen Institutuak, gai horretan eskumena duen autonomia-erkidegoko dagokion erakundeak, edo Europar Batasuneko edo Europako Esparru Ekonomikoko beste estatu kide bateko erakunde baliokide batek emango du.
 - b) Euskadiko Filmetegian edo ikus-entzunezko lanak bildu, katalogatu, kontserbatu, zaharberritu edo jendearen eskura jartzeko eskumena duten instituzio edo erakundeetan kopia berri bat uztea, egoera ezin hobean. Erakustaldian erabilitako euskarrian emango dira.

Baldintza hori ez da aplikatuko kenkaria ekoizle exekutiboak aplikatzen duenean edo Espainiako nazionalitatea duen obra bat ez denean.

5. Ikus-entzunezko lan bat zailtzat hartuko da kenkari honen ondorioetarako, honako kasu hauetan:
 - a) Film laburrak.
 - b) Zuzendari baten lehen edo bigarren lana diren filmak.



- c) Jatorrizko bertzio bakarria euskarazkoa duten lanak.
- d) Aurrekontu txikiko obrak, hau da, 1.000.000 eurotik beherako ekoizpen-kostua dutenak.
- e) Gaiagatik edo ekoizpenari datzekion beste arrazoi batzuegatik merkaturatzen sartzeko zailtasunak dituzten obrak.

e) Letra horretako kasuetan zergadunak frogatu beharko du lanak merkaturatzeko eragozpenak dituela. Lana zailtzat jotzeko eskatu beharko dio Zerga Administrazioari kenkaria aplikatzeko eskubidea egiaztatzen duen lehen zergaldia amaitu baino lehen.

- 6. Bat apartatuan xedatutakoaren ondorioetarako, Zinemaren abenduaren 28ko 55/2007 Legearen 4. artikuluan aurreikusitako definizioak hartuko dira kontuan.
- 7. Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 10eko 2/2005 Foru Arau Orokorreko 94. artikuluan xedatutakoa gorabehera, kenkaria aplikatzeko eskubidea egiaztatzen duten zergadunak ados egongo dira kenkariaren datuen berri ematearekin, estatuek obra zinematografikoetarako eta ikus-entzunezkoen arloko beste produkzio batzuetarako ematen dituzten laguntzei buruz Europako Batzordeak emandako jakinarazpeneko 52. ataleko 7. zenbakian ezarritakoarekin bat etorritik (2013/C 332/01), Batzordearen 2014/C 198/02 jakinarazpenak eragindako aldaketaren arabera. Jakinarazpen horren bidez Batzordeak Europar Batasunaren gidalerro hauei buruz emandako jakinarazpenak aldatu dira: banda zabala azkar hedatzeko estatu-laguntzei buruzko arauak aplikatzeko gidalerroak; eskualde-xedea duten 2014-2020 aldiko estatu-laguntzei eta obra zinematografikoetarako eta ikus-entzunezkoen arloko beste produkzio batzuetarako estatuek ematen dituzten laguntzei buruzko gidalerroak, arriskua finantzatzeko estatuek ematen dituzten laguntzei buruzko gidalerroak eta estatuek aireportuei eta hegazkin-konpainiei ematen dizkieten laguntzei buruzko gidalerroak. Ondorio horietarako, Bizkaiko Foru Aldundiak jakinarazpen horretan ezarritako informazioa argitaratuko du, jakinarazpenaren baldintzetan.

Bi. Arte eszenikoen eta musikalen zuzeneko ikuskizunengatiko kenkaria.

- 1. Arte eszenikoen eta musikalen zuzeneko ikuskizunak ekoiztean eta erakustean egindako gastuek kuota likidoan %30eko kenkaria izateko eskubidea emango dute, edo %40koa ikuskizuna euskaraz denean.

Kenkariaren oinarria jarduera horietan izandako zuzeneko kostu artistiko, tekniko eta sustapen-kostuek osatuko dute.

Zergaldi bakoitzean sortutako kenkariak ezin izango du 1.000.000 euroko zenbatekoa gainditu zergadun bakoitzeko. Kenkariaren zenbatekoak, zergadunak jasotako dirulaguntzekin batera, ezingo du gastu horien %80 gainditu.

- 2. Kenkari hori aplikatzeko, zergadunak lortu beharko du erregelamenduz ezartzen diren baldintzetan emandako ziurtagiri bat. Gainera, jarduera horiek garatzen den kenkarirako eskubidea sortzen den ekitaldian lortutako onuretatik, zergadunak gutxienez %50 bideratu beharko du apartatu honetan aurreikusitako kenkaria aplikatzeko eskubidea ematen duten jarduerak egitera. Azken betebeharrak hori betetzeko epea aipatutako onurak lortu diren ekitaldiaren hasieratik ekitaldi hori itxi ondorengo 4 urteetara bitartekoa izango da.



Hiru. Liburuak argitaratzeagatiko kenkaria.

Serieko industria-produkzioaren aurretik euskarri fisiko bat egitea ahalbidetzen duten liburuak argitaratzeko inbertsioek kuota likidoaren %5eko kenkaria izateko eskubidea emango dute.

Lau. Arau orokorrak.

1. Foru arau honen 67. Artikuluko gorabehera, kenkari eskubidea sortarazten duten inbertsioak eta/edo gastuak finantzatzeko jasotako dirulaguntzen kopurutik gutxitu egingo da kenkariaren oinarria.
2. Zergadunak hauek aurkeztu beharko ditu: artikulu honetako Bat eta Bi apartatuetan aurreikusitako kenkariak hartzen dituen zergaren autolikidazioa, eta jasotako gainerako laguntza edo dirulaguntza publikoen zerrenda, aurreko Bat.3 eta Bi apartatuetan aipatutako kenkariaren gehieneko ekarpenak betetzen diren zehazteko. 1.
3. Baldin eta artikulu honetan aipatzen diren eta kenkaria aplikatu ondorengo ekitaldi batean bete behar diren kenkarietako edozein aplikatzeari lotutako betekizunak betetzen ez badira, egindako kenkariengatik bere garaian ordaindu ez ziren kuotak ordaindu beharko dira, dagozkien berandutze-interesekin, eta horiek ez-betetzea gertatu den ekitaldiko autolikidazioaren ondoriozko kuotari gehitu beharko zaizkio.
4. Artikulu honetan ezarritako kenkariak aplikatzeko baldintza gehigarriak ezarri ahal izango dira erregelamendu bidez, bereziki, lanaren kreditu-tituluetan sartu beharreko informazioarekin eta material grafiko eta ikus-entzunezkoaren erabilera lagatzearekin zerikusia dutenak. Material horrek ez du erabilera komertzialik izango, eta lurraldea sustatzeko erabiliko da.”

«66 quinquies artikulua. Ikus-entzunezko lanen eta arte eszenikoen eta musikalen zuzeneko ikuskizunen finantzaketan parte hartzea.

1. Zerga honen edo Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren zergadunek kuota likidoaren kenkaria egiteko eskubidea izango dute, artikulu honetan ezarritako baldintzetan eta betekizunekin. Horretarako, honako baldintza hauek bete beharko dituzte: establezimendu iraunkorren bitartez jardutea, zinemako film luze eta film laburren eta ikus-entzunezko beste lan batzuen ekoizpenaren finantzaketan parte hartzea, bai eta ikus-entzunezko sailen (fikziozko, animaziozko edo dokumentalak) ekoizpenean ere, Azken horiek aukera eman behar dute serieko industria-ekoizpen egin aurretik euskarri fisiko bat egiteko edo arte eszeniko eta musikalen zuzeneko ikuskizunak ekoiztu eta erakusteko, eta, gainera, aurreko 66 quater artikuluko Bat eta Bi apartatuetan ezarritako kenkarietarako eskubidea sortzeko baldintzak betetzen dituzten beste zergadun batzuek egindakoak izan behar dute. Kenkari hori bateraezina izango da, osorik edo zati batean, aipatutako 66 quater artikuluan xedatutakoa aplikatzearen ondorioz zergadun horiek jaso ditzaketen kenkariekin.

Kenkaria ez da aplikatuko ekoizpenaren finantzaketan parte hartzen duen zergaduna, foru arau honen 42. artikulua araber, ekoizpenaren finantzaketan parte hartzen duen zergadunarekin lotuta dagoenean.

2. Zergadun batek beste zergadun batek egindako ikus-entzunezko lan baten edo arte eszeniko eta musikalen zuzeneko ikuskizunen produkzioaren finantzaketan parte hartzen duela ulertuko da, baldin eta itzuli beharrik gabeko zenbatekoak ematen baditu aurreko 66 quater artikulua Bat eta Bi apartatuetan aipatutako kenkariaren oinarria osatzen duten inbertsio eta gastu guztiak edo batzuk ordaintzeko.

Ez da subrogaziorik onartuko finantzaketan parte hartzen duen zergadunaren posizioan, oinordetza unibertsaleko kasuetan izan ezik.



3. Artikulu honetan xedatutakoa aplikatzeko, beharrezkoa izango da finantzaketa-kontratu bat sinatzea. Kontratu horretan, besteak beste, alderdi hauek zehaztuko dira:
 - a) Arte eszenikoen eta musikalen ikus-entzunezko obraren edo zuzeneko ikuskizunaren produkzioan parte hartzen duten zergadunen nortasuna.
 - b) Arte eszenikoen eta musikalen ikus-entzunezko obraren edo zuzeneko ikuskizunaren deskribapena.
 - c) Arte eszenikoen eta musikalen produkzioaren edo zuzeneko ikuskizunaren aurrekontua, zergadunak zerga egoitza duen Lurralde Historikoan egingo diren gastuen eta, bereziki, egingo diren gastuen deskribapen zehatza eta horien aldi baterako egozpena eginez.
 - d) Finantzaketa-modua, honako hauek berezita: arte eszenikoen eta musikalen ikusentzunezko edo zuzeneko ikuskizunaren ekoizpena egiten duen zergadunak ematen dituen zenbatekoak, finantzaketan parte hartzen duen zergadunak ematen dituenak, eta finantza-erakundeen kredituei, dirulaguntzei eta bestelako laguntza-neurriei dagozkienak.
 - e) Erregelamendu bidez ezartzen diren gainerako kontuak.

4. Finantzaketan parte hartzen duten zergadunek ezin izango dute jabetza intelektualeko eskubiderik edo bestelakorik eskuratu ekoizpenaren edo ikuskizunaren emaitzei dagokienez.
5. Zergadunek artikulu honetan ezarritako araubidea aplikatzea aukeratzen badute, ikerketako, aurreko artikuluko Bat eta Bi apartatueta aipatzen diren zergadunek ez dute eskubiderik izango artikulu horietan ezarritako kenkaria osorik edo zati batean aplikatzeko, eta, haren ordez, finantzaketan parte hartzen duen zergadunak eskubidea izango du bere autolikidazioan egiaztatzeko artikulu honetan ezarritako kenkaria. Horren zenbatekoa aipatutako Bat eta Bi apartatueta aurreikusitako kenkariak aplikatzeko eskubidea sortu duten zergadunei aplikatu zaizkien baldintza berberetan zehaztuko da.

Aurrekoa gorabehera, finantzaketan parte hartzen duen zergadunak kuotan gehienez ere aplika dezakeen kenkariaren zenbatekoa hau da: zergadunak berak finantzatzeko ordaindutako zenbatekoa bider 1,20 eginez ateratzen den zenbatekoa. Aurreko artikuluko Bat eta Bi apartatueta aurreikusitako kenkariak aplikatzeko eskubidea sortzen duten zergadunek aplikatu ahal izango dute soberakina.

6. Finantzaketan parte hartzen duen zergadunak artikulu honetan ezarritako kenkaria aplikatuko du urtero, zergaldi bakoitzean ordaindutako ekarpenen arabera, bai eta aurreko artikuluko Bat edo Bi apartatueta kenkaria ere, zergaldi bakoitzean egiaztatzen dena.

Hala ere, finantzaketan parte hartzen duen zergadunak zergaldian aurreko artikuluko Bat edo Bi apartatuen arabera egiaztatutakoa baino kenkari handiagoa ahalbidetu duten zenbatekoak jartzen baditu, soberakina hurrengo zergaldietan aplikatu ahal izango da, aurreko apartatuan aurreikusitako muga arabera.

7. Ikus-entzunezko lanen eta arte eszenikoen eta musikalen zuzeneko ikuskizunen finantzaketan parte hartzen duen zergadunak kenkaria aplikatzen badu, hori guztia kontuan hartu behar da foru arau honetako 59. artikuluko 3. zenbakian ezarritakoaren ondorioetarako, eta kenkariaren zenbatekoa kontuan hartu behar da foru arau honetako 67. artikuluko 1. zenbakian zehaztutako baterako muga (%35) aplikatzeko.
8. Artikulu honetan aurreikusitako kenkaria baliatu nahi duten zergadunek 3. apartatuan aipatutako finantzaketa-kontratuak aurkeztu beharko dute, kontratuko alde guztiek sinatuta. Jakinarazpen bidez



aurkeztuko dio Zerga Administrazioari, kenkaria sortzen den zergaldia amaitu baino lehen, eta erregelamendu bidez ezartzen diren baldintzetan.

Era berean, obra kulturala dela egiaztatzen duen erregelamenduz ezartzen diren baldintzetan emandako ziurtagiria aurkeztu beharko du, edo, oraindik eman ez bada, eskaera egiaztatzen duen dokumentazioa.”

67. artikulua. Kapitulu honetan aurreikusitako kenkarietarako buruzko arau orokorrak.

1. Kapitulu honetan arautzen den kenkarietarako batura ezin da izan kuota likidoaren %35 baino gehiago, honako kenkari hauek izan ezik:
 - a) Aurreko 62 - 64 artikuluetan jasotakoak. Horien muga kuota likidoaren %70 izango da.
 - b) 65. eta 66 quater artikuluetan jasotakoak. Horien muga kuota likidoaren %50 izango da.

Muga desberdinek eragindako kenkariak aldi berean gertatzen badira, %70eko muga %35eko baterako kenkarietarako muga aplikatu ondoren ateratzen den kuota likidoaren soberakinari aplikatuko zaio, eta %50eko muga %35eko eta 70eko kenkarietarako muga aplikatu ondoren ateratzen den kuota likidoaren soberakinari.

2. Kuota nahikoa ez izateagatik kendu ez diren zenbatekoak ondoz ondoko hurrengo hogeita hamar urteetan amaitzen diren zergaldietako likidazioetan aplikatu daitezke, baina muga berak errespetatuz.

Kapitulu honetako kenkariak aplikatzeko kontuan hartzen diren epeen konputua atzeratu egin daiteke, preskripzio-epareen barruan emaitza positiboak gertatzen diren lehen ekitaldira arte, hain zuzen.

3. Hitzartutako kontraprestazio osoa sartuko da kenkarietarako oinarrian, baina ez dira kontuan hartuko hauek: interesak, zeharkako zergak eta haien errekaratuak, eraikuntza-marjina eta lizitazioaren gastu teknikoak; bada, aurreko horiek ez dira kenkarietarako konputatuko, baina kontuan hartu ahal izango dira aktiboak edo pasiboak balioesteko.

Aurreko zenbakian xedaturikoa gorabehera, ez dira kapitulu honetan ezarritako kenkarietarako oinarrian sartuko kenkarietarako aplikatzeko eskubidea ematen duten aktiboetarako lotutako eraiste edo kentzeen ondorioz hartuko diren betebeharrak dagozkien kostuak, kostuak kontuan har daitezkeen arren aktiboetarako balioesteko.

Errentamendu operatiboen kasuan, errentan eman edo laga den elementuan errentariak egindako inbertsio baten ondorioz agerian jartzen diren aktiboetarako ez zaizkie aplikatuko kapitulu honetan aurreikusitako kenkarietarako, salbu eta beren-beregi hala ezartzen denean.

Kenkarietarako oinarria, horrela kalkulaturik, ezin izango da handiagoa izan alderdi independenteek merkatuko baldintza normaletan adostuko luke tena baino.

Inbertsioak ondasun higiezinetan egiten badira, lurzoruetarako balioa kenkarietarako oinarritik kanpo utziko da beti.

Halaber, kenkari horren oinarritik hau murriztuko da: aurreko hiru kapitulu etarako kenkarietarako dagozkien inbertsio etarako edo jarduerak sustatzeko jasotzen diren diru-laguntzei (kapitalekoak zein ustiapenekoak) 100 eta entitateari aplikatu beharreko karga-tasaren arteko kenketa eginez ateratzen den emaitza.



Kapitulu honetan araututako kenkarien oinarrian sartzen diren zenbateko guztiak ibilgetu moduan egon beharko da kontabilizatuta, edo gastu moduan, Kontabilitate Plan Orokorreko arauetara jarraituz betiere.

4. Oro har, kapitulu honetan aurreikusitako inbertsioak funtzionamenduan jartzen diren unean egindakotzat hartuko dira.

Hala ere, epe luzerako inbertsioetan (hamabi hilabete baino gehiago igarotzen direnean ondasunak enkargatu zirenetik zergadunaren eskuera jarri arte), zergadunak erabaki dezake inbertsioa ordaintzeko egin ahala ematea egindakotzat, eta ordaintzeta horien zenbatekoaz; gainera, kontratua inbertsio-ondasunen hornitzailearekin sinatu zen egunean indarrean zegoen kenkarien araubidea aplikatuko du.

Aukera hori eginez gero, irizpide hori inbertsio osoan izango da aginduzko.

Aukera horretaz baliatu nahi duen zergadunak Ogasun eta Finantza Sailari jakinarazi behar dio, idatziz, hilabeteko epearen barruan, kontratuaren datatik aurrera. Jakinarazpenean, kontratatutako inbertsioaren zenbatekoa zehaztu beharko du, bai eta ondasunak eman eta ordaintzeko egutegia ere. Halaber, jakinarazpen horrekin batera kontratuaren kopia ere bidali behar dio.

5. Kapitulu honetan aurreikusitako kenkarien xede diren aktibo ez-korronteak edo ondareelementuak gutxienez bost urtez (edo, ondasun higigarriak badira, hiru urtez) egon beharko dira funtzionatzen zergadun beraren enpresan, aurreko artikuluetan aurreikusitako helburuei afektatuta, hala badagokio, salbu eta ondasun horien balio-bizitza laburragoa denean; gainera, aktibo eta elementuok ezin dira eskualdatu, alokatu edo hirugarrenei erabiltzeko laga gabe, justifikatutako galerak izan ezik. Elementu horiek desafektatu, 107 eskualdatu, errentan eman edo laga egiten badira, edo adierazitako epe hori amaitu baino lehen ezarrita dauden helburuetarako desafektatzen badira, kuotak ordaintzeko betebeharra sortuko da, egindako kenkariak direla-eta aurretik ordaindu ez ziren kuotak, alegia -dagozkion berandutze interesekin batera. Kuota horiek -eta berandutze interesakinguruabar hori gertatzen den ekitaldiko autolikidaziotik ateratzen den kuotari gehitu beharko zaizkio.

Aurreko zenbakian xedatutakoa gorabehera, kenkarigai den inbertsioa gauzatzen den aktibo ez-korronteak zenbaki hartan ezarritako epea baino denbora gutxiagoz egon daitezke funtzionatzen, baldin eta haien orde, hiru hilabeteko epean, kenkarirako eskubidea ematen duten betebeharrak eta baldintzak betetzen dituzten beste batzuk ipintzen badira.

Nolanahi ere, ulertuko da ez dagoela desafektaziorik inbertsioa gauzatzen deneko ondasunak alokatu edo hirugarrenei erabiltzeko lagatzen zaizkienean, honako hiru baldintza hauek betetzen badira: zergadunak, ustiapen ekonomiko bat dela medio, aktibo finkoak alokatzen edo hirugarrenei erabiltzeko lagatzen jardutea, ondasun horien errentari edo lagapen-hartzaileekin loturarik ez izatea -foru arau honetako 42. artikuluan azaldutako zentzuan-, eta finantza-errentamenduko eragiketarik ez izatea.

6. Gastu edo inbertsio berak ezingo du ekarri kenkaria entitate bat baino gehiagotan aplikatzerik, ez eta entitate berean kapitulu honetan araututako kenkarietako bat baino gehiago aplikatzerik ere. Ezin izango du kapitulu honetan araututako kenkariak aplikatzerik ekarri, halaber, ekintzailatza sustatzeko eta ekoizpen-jarduera sendotzeko erreserba berezia (foru arau honetako 53. artikuluan ezartzen dena) gauzatzeko balio izan badu.



Kapitulu honetan ezarritako kenkariak bateraezinak izango dira inbertsio eta gastu berekin loturiko beste edozein zerga-onurarekin, amortizatzeko askatasunari, amortizazio bizkortuari eta baterako amortizazioari dagokienez izan ezik.

7. Kuota likidoko kenkariak aplikatzerakoan honako hurrenkera hau jarraitu behar da:
 - a) Lehenengo, artikuluko honetako 1. zenbakian zehaztutako muga (%35) aplikatu behar zaien aurreko ekitaldietan sortutako kenkariak.
 - b) Bigarrenik, artikuluko honetako aurreko 1. zenbakian ezarritako muga (%35) aplikatu behar zaien ekitaldiko kenkariak.
 - c) Hirugarrenik, artikuluko honetako aurreko 1. zenbakian ezarritako muga (%70) aplikatu behar zaien aurreko ekitaldietako kenkariak.
 - d) Laugarrenik, artikuluko honetako aurreko 1. zenbakian ezarritako muga (%70) aplikatu behar zaien ekitaldiko kenkariak.
 - e) Bosgarrenik, aurreko ekitaldietan sortutako kenkariak aplikatuko dira, baldin eta artikuluko honen 1. paragrafoan ezarritako (%50) muga aplikatu behar bazaie.
 - f) Azkenik, artikuluko honen 1. paragrafoan ezarritako (%50) muga aplikatzen zaien ekitaldiko kenkariak aplikatuko dira.
8. Kapitulu honetan araututako kenkariak soilik izango dira aplikagarriak bertan eskatutako baldintza eta beharkizunen pean, zergadunak bere kabuz aurkezturiko autolikidazioetan aplikatutako zenbatekoengatik. Zerga-arloko arau-haustearen ziozko erantzukizunik sortu ez duten likidazioen ondoriozko autolikidazioetan ere aplikagarriak izango dira, foru arau honetako 128. artikuluan xedatutakoaren kalterik gabe.
9. Kapitulu honetan araututako kenkariak ez zaizkie aplikatuko foru arau honetako 14. artikuluko ondare-sozietateei.

59. artikulua. Benetako kuota eta gutxieneko tributazioa.

1. Benetako kuota hau da: kuota likidoari titulu honetako III. kapituluan ezarritako kenkarien zenbatekoa gutxituta geratzen den zenbatekoa.
2. Benetako kuota ezin da inoiz negatiboa izan.
3. Zerga-oinarri positiboak eduki dituzten zergadunen kuota efektiboa, hau da, kuota likidoari kenkariak (betiere foro arau honetako 62-64., 65 eta 66 quater artikuluetakoak ez beste guztiak) aplikatzearen ondorioko kopurua, ezin da izan zerga-oinarriaren %17 baino gutxiago, oro har. Foru arau honetako 56. artikulua 7. apartatuan aipatzen diren entitateen kasuan, ehuneko 13 izango da.

Hala ere, kuota likidoa kenkariak aplikatuta murriztearen ondorioz lortzen den benetako kuota ezin da izan honako kasu haueko ehuneko baino txikiagoa:

- a) Enpresa txikiak edo mikroenpresak: zerga-oinarriaren %15.



- b) Foru arau honetako 56.3 artikuluan ezarritako karga-tasaren arabera tributatzen duten entitateak: zerga-oinarriaren %11,75.
 - c) Foru arau honetako 56.6 artikuluan ezarritako karga-tasaren arabera tributatzen duten entitateak: zerga-oinarriaren %20,25.
4. Entitateak aurreko ekitaldiko lan-kontratuko plantila mugagabearen batez besteko kopurua mantentzen badu edo kopuru hori gehitzen badu, aurreko zenbakiko ehunekoak barik honako hauek aplikatuko dira, hurrenez hurren: %15, %11, %13, %9,75 eta %18,25.
 5. Aurreko bi zenbakietan xedatutakoa ez zaie aplikatuko foru arau honetako 56. artikuluko 2., 4. eta 5. zenbakietan ezarritako karga-tasaren arabera tributatzen duten entitateei.